

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Matias Sagasta Elorza

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1920)*

Aurkibidea



Biografia



Musakola auzoko Mojategi baserrian jaio zen, zortzi anai-arreben artean seigarrena, bere aitaren bigarren emaztearena. Aita bertakoa zen, eta ama berriz Aramaioko Gantza auzokoa. Eskolan auzoan bertan hasi zen sei urterekin. Gero kalean jarraitu zuen hamalau urtera arte, Ferixa Leku ondoko eskolan, Zarugaldekoan eta Abadetxeakoan bukatuz. Eskolak euskaraz jaso zituen. Eskolak bukatu eta pinu sartzeari ekin zion lanbide bezala. Hiru urtez basomutil jardun ondoren, "Arzamendi, Berecibar y Cía." sarraila lantegian hasi zen eta bertatik jubilatu zen. "Quinta del Biberón" barruan joan zen gerrara. Gasteizen egon zen gerrak iraun zuen artean, agintari militar baten laguntzaile lanetan. Afrikan bukatu zuen soldaduska, ia sei urtekoa izan zena. Auzo bereko Osiñalde baserriko Faustina Aranarekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba dituzte. Matiasen lagun Pablo Barrena ere egon zen elkarrizketan.

Zintak

ARR-175

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-28
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Eskola eta dotrina

- **Erref:** ARR-175/003
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:04:23. **Bukatu:** 00:06:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Eskolan auzoan hasi zen sei urterekin. Gero, kalean jarraitu zituen ikasketak 14 urtera arte: Ferixa Leku ondoko eskolan, Zarugaldekoan eta Abadetxekoan. Eskola eta dotrina euskaraz izaten ziren. Erlijioak garrantzi handia zuen.

Transkripzioa

-Musakolan ez euen orduan eskolarik?
-A bai, auen bai, lelengo-lelengo hamen ibili nitzen, bai.
-A! Hemendik e, hasi hemen?
-Bai. Hasi hamen in nitzen. Hamentxe auen, eskolie, hor, hamentxe horretxen ostien auen. Hamen. Baiña hamen denpora gutxi ein nauen. Gero fan nitzen Zarugaldera. Gero Zarugaldetik abadetxera. Abadetxe azpixin be egon zan.
-(Laguna) Hori da.
-Joe, lau eskola?
-Bai. Danetan, danetan be ez nauen asko ikesi. Orduen e, orduen dotriñie euen gerra aurretik. Dotriñie euen gu mutikuek gitzela.
-Euskeraz edo erderaz irakurtzen otsuein dotriña?
-Euskeraz.
-(Laguna) Euskeraz.
-Ta eskolak?
-Eskolie be euskeraz.
-A, eskolie be euskeraz, e?
-Bai. Ta eskoliek ez auken orduen hainbeste inportantzia. Erreligiñuek bai, zera, dotriña! Ta harekek...
-(Laguna) Damututa e? Zera.
-Damutute ez, damutute ez nau! Dotriña barik be fedia eukiz gero iguel-iguel irebazten da zerue. Iguel-iguel irebazten da!
-Guk dotriñie asko dakigu, baiña federik ez.
-[Zu gaur be] fan elixara bai, ta asko ikusten dittut [aittaren eitten ez da kristaurik be ikusten]. Barriketan. Ta mezie geraketan danien, kanpoa! Haik daukie fedie? Faten ez danak fede gehixau euki leike faten danak baiño!
-Eta zenbat urte in zittun danera eskolan?
-Ba hamalau urtekin urten nauen.
-Justo gerra aurretixuan, ezta?
-Bai.

2. Ospelak eta erlakiztenak

- **Erref:** ARR-175/005
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola denboran, erdietan ez omen zen joaten. Hanketan ospelak eta lepoan erlakiztenak edukitzen zituen, eta udazkenetik udaberrira bitartean ia ez zen eskolara joan ere egiten.

Transkripzioa

-Ta eskola denporan egunero faten ziñan eskolara, edo?

-Buuuu... erdixak be ez nitzen faten. Nik gaztetan ibiltten nauen horreik e, hanketan zera, zerak, ospelak.

-A bai.

-Ospelak, ta erlakestenak hemen lepuen ta danien. Ta eskolara ez nitzen fan erdixen denporatan be ez. Hasi e, udazkenetik...

-(Laguna) Negu partien e.

-Hasi, udazkenetik hasi bai, ta haik eta udabarrira arte, udabarrira arte, ez nitzen kasik faten. Erdixetan fango nitzen.

-Ospelak eta erlakestenagatik?

-Ospelak eta erlakestenak. Hamen lepuetan.

-(Laguna) Hotzak e, hotzak.

-Kontxo.

-Hotzak ez! Hotzak ez us... hotzak ez. Klasiek! Norberan klasiek edo izetie, edo ez dakit nik zer.

-Baiña ospelakin ta erlakestenakin etxien lan eittia bazeukatzun?

-(Laguna) Ez, etxien egon.

-Lana?

-Lanik be ez, etxien?

-Bai...! Mutiku hori zer ibili bizan orduen, ta ba, gero be bai, baiña bai, etxe inguruen han ortuen ta ibiltten nitzen, baiña kale aldera ta fan ezin. Baiñe, han ibiltten zien ama ta kipulie, ta niri zertzuk eta medikamentuek be eitten baiñe, bat kendu orduko hiruk urteten ustien barriro.

-(Laguna) Nox arte...? Ta hori, urtero?

-Urtero-urtero.

-(Laguna) Bai, e?

-Bai. Azkena euki nauen... Afrikan egon nitzen. Azkenengo euki nauen Afrikan, hantxen e, Melillan.

-(Laguna) Orduen be bai? Ordura arte?

-Bai, azkenak hantxe urten usten, Melillan. Melillatik 25 kilometrora, ze ginguzen e, [itxaso] gaiñien kosta baten ginguzen. Hantxen hementxe tripa-tripan euki nauen. Eta haxe kendu jaten ta akabo. Baiña ni gaztetan ibili nitzen e buuuu... madre.

-Kontxo, kontxo.

-(Laguna) Ta medikue ze, medikuek ez auen...?

-Medikuek ez usten, zera be ez auen... ez zakixen, medikuek, ezebez. Mondraguen orduen, zein dau ba medikue? Lavajos edo egongo zan.

-(Laguna) Espinosa ta...

-Baiii e...! Hori, [halakorik] ez zakixen ezebe!

3. Tipula, erlakiztenak sendatzeko

- **Erref:** ARR-175/006
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

Erlakiztenak sendatzeko: zartaginean olio apur batean bigundutako tipula zatia. Tipulak barruko zikina ateratzen du.

Transkripzioa

-Amak ze ipintten otsun erlakestenen kontra?
-En jeneral e, kipulien zera, zati bat kendu, holan orri host... eukitten daue orrixe moduen, haxe. Uretan edo zeretan bigundu apurtxo bat zartagiñan apur-apurtxo bat ta ha ifintten ustien.
-Eta kipuliaren landariaren orrixa edo...?
-Kipula buruena. Ha kipulie zertu ezkerro, beran atalak eukitten dittu kipuliek. Holako ataltxo bat epeldu, suten edo, zerekin... olixo apurtxo bateaz. Ta, ze gero freskaketan zanien, ha ifintten usten. Ta harek...
-Esparadrupuakin?
-Harek atara eitten auen puse.
-(Laguna) Ha pusa txupau.
-A, zornia atara harek e?
-Atara eitten auen, bai. Baiña urteten ustien barriro. Buenooo... mutilak...!
-(Laguna) Ta hori urtietan euki zauen?
-Bai.

4. Ume denborako jolasak

- **Erref:** ARR-175/009
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:10:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan, kaniketan eta txapetan ibiltzen ziren jolasean. Pilotan, gutxi. Zaldibarko frontoi handia aipatzen du. Mutikoak mutikoeekin eta neskatilak neskatilekin ibiltzen ziren.

Transkripzioa

-Jolasak eta ze jolas klase eitten zeuein?
-Jolasak orduen? Kanikak eta, kanikatan ta, ta txapak edo esaten dutsie, txapetan ta holako gauzatan.
-Ta pelotan ta eitten zeuein?
-Pelotan gutxi.
-(Laguna) Ez auen frontoirik be hamen.
-Zaldibarreko frontoi haundixa.
-(Laguna) A, Zaldibar, Zaldibar. Baiña esan gure dot /gurot/...
-Bai, Zaldibar frontoi haundixe.
-Eta ze egoten ziñain, neska-mutillak alkarrekin edo aparte, edo zela zan?
-Ez, mutikuek mutikuekin eta neskatillak neskatillakin ibiltten gitzen.
-Aparte?
-Bai, aparte.

5. Pinua sartzen

- **Erref:** ARR-175/011
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:11:34. **Bukatu:** 00:14:04

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Flora

Laburpena:

14 urterekin eskola bukatu, eta pinua sartzen hasi zen aita eta beste gizon batekin. Bergarako kondearen lurretan ibili ziren pinua sartzen. Matiasen eginkizuna izaten zen pinu landarea ipintzea. Gerra denboran itsas pinuak bota egin zituzten. Gero etorri zen intsignis pinua.

Transkripzioa

-Bueno, eta eskolok akabau zienien, etxian geratu ziñan, edo?

-Bai, fabrikan, edo zerien, bai etxien geratu nitzen. Ibili nitzen lelengo ba, hamalau urtekin, hor e Bergako batek, hamen ze gauken terrenuek asko basuek aukien...

-Gernikakuak?

-Bergakuek.

-A, Bergarakuak.

-Bergakuek, Bergakuek. Bergarako kondienak edo ez dakit zer zan. Hamen basuek auken. Ta Ugako baserriko ha, Gregorio, hango gizona aitte ta nire aitta lagunak zien ta zerekue ibiltten zan e, Ugakuori e, horren piñuek sartzen. Ta gure aittekin tratu bat eitten auen eta aitte ta bixek ibiltten zien. Egon nintzen mutikue, hamalau urteaz edo...

-(Laguna) Nun aukien piñuek horreik?

-Hau e, hamentxe, Maxuen gaiñien. Ta gero Saburdi azpixen be bai, zer haundixe aukien. Kondienak. Bergarako kondienak edo izeten zien.

-(Laguna) "Conde de Villafranca" ez zan? "Conde de Villafranca".

Holakoren bat.

-Bai, bai, bai. Eta zeu be basuen ibili ziñan orduan?

-Bai, aitte ta ha beste Ugakue, zuluek eitten, ta gero sartzen, ta ni ibiltten nitzen ba landarie botaten, illeretan, geroko.

-(Laguna) Piñuak zien?

-Piñu landaria ifintten.

-(Laguna) Orduen, hemen? Bai, e?

-Bai, bai.

-Joño! Piñuek zaharrak die hamen, e!

-Bueno, gerra denporan e, gerra denporan beste hori, piñu klase hori, horrek izen "maritimo" ta insignisek, gerra denporan hareik bota ein zittuen. Basuak. Orduen bota, gerra denporan. Orduen ha auen, ta gero etorri zan hau insignis hau piñu klasie, hau hobie zala ta haik bestiek desapareziru ein zien. Maritimuek.

-(Laguna) Haik insignis, insignisak ez zien...

-Haik maritimuek ia...

-A, lehendik maritimua euen?

-Bai.

-Eta gero sartu zan insignisa?

-Bai.

-Insignisak azkarrau urten zain, ezta?

-Bai, ixex ixex doble...hogei urte gutxienien diferentzia. Ta gero eliminatu zan hori ta akabo.

-Ta zueik [alaizerua] ta alerzia ta honeik ez zittuein sartzen?

-Ez, ez, hamen ez zan sartzen hori.

-Dana insignisa?

-Bai, bai.
-Abetorik be ez?
-Gutxi, gutxi. Horreik, horreik sartzen zien horra... Aramaixo aldera zeretara ta gero sartu zien, baiña hamen ez. Hamen hauxe, ontxe dauen klasie.
-(Laguna) Insignisa.
-Insignisa.
-Oseake hamalau urtekin orduen piñu sartzen...

6. Ama, elizkoia

- **Erref:** ARR-175/013
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:15:14. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa

Laburpena:

Amari buruzko azalpenak. Matiasen ama oso elizkoia zen: goizetan mezara joaten zen. Etxeko denak errezatu behar izaten zuten arrosarioa.

Transkripzioa

-(Laguna) Nik ezautu nauen ama?
-Bai, bai.
-(Laguna) Zeozer akordua... ze urtetan hil zan? Noiz?
-Ha...
-(Laguna) A, bai, ezautu nauen, bai!
-Ha mezara faten zan hamendik oiñez fanda parrokiara. Buenooo. Hamarretako mezara lenengo. Hamarretako mezara fan. Etxien bazkaldu, etorri hona parrokiatik, barrero Ezpeletara.
-(Laguna) Faten zan.
-Bai. Ta etxien egunero-egunero Errosaixua ordu betekua.
-Amak hori?
-Amak. Danokin, e! Danokin. Ogera faten itxi be ez! "Eee!! Lelengo errezau ein biher dok /bihok/!!"
-Neuk be pasau dot hori. Nik amandriekin.
-la...

7. Gari-jotzeko makina, soziedadean erosia

- **Erref:** ARR-175/015
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:16:16. **Bukatu:** 00:17:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Matias mutikoa zela auzoko sei baserriren artean sozio erosi zuten gari-jotzeko makina, "matxakia". Etxezarretan egoten zen makina.</p>

Transkripzioa

-Zure garaixan, zu gaztia ziñanian, garixa jo eta zela itten zan?

-Niri akordau orduko, gurien ez zan jo ta ez zan ein. Ni akordau orduko hameko baserritarrek, soziuek xei edo zien, ta makiñie hartu auen. Ta ni akordau orduko, mutiko txikiña nitzela.

-Makiña, matxakia?

-Bai. Hamen lau baserri. Hamen Axeriko hamen auena, eta Kataide, Garratze, Zabaleta [bixek] eta Mojategi. Hartu auen makiña. Ta egoten zan ha makiñie Etxezarreta, han behien, Etxezarretan. Egoten zan ha makiña.

-A, osea, Madrileñuen... Madrileñue, edo hori nungue zan Etxezarretako hori?

-Ha Etxezarreta, hango jefie hil zana, ha famosue?

-Bai.

-Bai. Ha, diputaue edo izendakue zan ha.

-Haren etxian egon zan makiña?

-Gero haren etxien auen. Berak ez e. Gero auen ba etxie zainketako, baserrixe ta basue zainketako beste bat. Satur, Murua. Murua auen.

-Hori Satur hori ze etxetakua zan?

-Hori betarra zan, ez dakit ze herrikue izengo zan.

-(Laguna) Andria zan Ugakua.

-Ugakua andria. Ta bera betarra zan, ez dakit ze herrittakua izengo zan. Satur. Betarra zan ha. Ta hak eitten auen hori.

8. Etxezarretatarrak

- **Erref:** ARR-175/016
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:19:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etxezarreta baserriko nagusia gerra denboran hil zen, ondoezak emanda. Haren alargunari buruzko azalpenak ematen ditu. San Isidororako kaperara joaten zen meza entzutera. Zaldi bat eta gurdi batekin ibiltzen ziren. Uda partean joaten ziren Arrasatera.

9. Etxezarretako sagastiak eta dolarea

- **Erref:** ARR-175/017
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:19:12. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Etxezarreta baserrian sagasti handia zuten. Sagardoa egiten zuten bertan. Matiasen aita eta anaia joaten ziren Mojategiko sagarrekin hango makinan sagardoa egitera.

10. Arzamendi, Berecibar y Cía lantegian hasi

- **Erref:** ARR-175/019
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:21:19. **Bukatu:** 00:23:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Ia hiru urtean ibili zen basolanean. 17 urterekin, Arzamendi, Berecibar y Cía lantegian hasi zen lanean. Lantegia non zegoen azaltzen du. Sarrailagintzan aritzen ziren. Bolada baten 80-90 langile izan ziren. Gerra aurrean sortutako lantegia zen.

11. Soldaduak Anporretan

- **Erref:** ARR-175/020
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:23:03. **Bukatu:** 00:24:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Mojategi baserrian pasatu zuten gerra, ez ziren beste inora joan. Beste baserri batzuetatik bidali egin zituzten, gerra zetorrela eta. Soldaduak Anporretan egon ziren.

12. "Gorrien" erasoa

- **Erref:** ARR-175/021
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:24:06. **Bukatu:** 00:25:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Anporretan Francoren aldeko soldadu bat hil zuten. Nazionalek sei hilabete egin zituzten Arrasaten, udazkenean iritsi eta udaberrira arte. "Gorriek" atakea eman eta militarrek pinudiari su eman zien. "Gorriak" Kanpazarren geratu ziren.

13. Cerrajerara bonbak bota

- **Erref:** ARR-175/023
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:27:01. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Cerrajera lantegiari bonbak botatzen zizkien bertan bonbak egiten zituztelako. "Gorriek" Kanpazartik botatzen zituzten jaurtigaien zarata gogoratzen du.

14. Udalatxen kainoia

- **Erref:** ARR-175/025
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:28:22. **Bukatu:** 00:28:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Cerrajera lantegiari bonbak botatzen zizkien bertan bonbak egiten zituztelako. Udalatxen, goi aldean, kainoia jarri zuten nazionallek, mandoekin igota.

15. Militarrek baserri hutsetan

- **Erref:** ARR-175/027
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:30:06. **Bukatu:** 00:32:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Gerra denboran ez zuten militarrik eduki Mojategi baserrian. Musakolan baserri hauetan gelditu zen jendea: Garratz, Osiñalde eta Mojategi. Beste baserrietatik jendea kanpora bidali zuten: baserriak utzi beharra, militarren mehatxuak tarteko. Auzoko baserri hutsetan militarrek egon ziren gero.</p>

16. Auzoko mutilak "gorriekin"

- **Erref:** ARR-175/028
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:32:22. **Bukatu:** 00:33:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Musakolan 25 baserri zeuden gerra etorri zenean. Mutil asko zegoen auzoan. Mutil gazte kuadrilak joan ziren nazionalistekin. Haien agurrak. Gero, nazioalek baserrietan norbait falta zela ikusten bazuten, familia osoa bidaltzen zuten baserrietik.

17. 'La Quinta del Biberón'

- **Erref:** ARR-175/029
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:33:58. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Borroka](#)

Laburpena:

18 urterekin, soldadu joateko deitu zioten Matiasi. 1946an Gasteizen egon zen, kapitain baten asistente. Gasteizera joan eta sei bat hilabetera bukatu zen gerra.

18. Afrikara soldadu

- **Erref:** ARR-175/030
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Soldadutza](#)

Laburpena:

Gerra bukatu eta denbora gutxira, Afrikara bidali zuten soldadu. Afrikarako bidaia nolakoa izan zen azaltzen du. Melillatik 25 kilometrora zegoen kostaldeko kanpamendu batean zazpi-zortzi hilabete egin zituen. Gero, Ceutan eta Tetuanen egon zen.

19. Lizentziatu eta lau hilabetera berriz soldadu

- **Erref:** ARR-175/031
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:37:00. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Soldadutza](#)
- [Politika](#) » [II. Mundu Gerra \(1939-1945\)](#) » [Alemaniarren alde edo kontra ibiliak](#)

Laburpena:

Soldadutzako kontuak. 22 urterekin lizentziatu zen Matias. Etxera bueltatu eta lau hilabetera berriro soldadu joateko abisua heldu zitzaion II. Mundu Gerra zela eta. Bi urte eta erdi pasatu zituen Gasteizen. Domeketan etxera joateko sukaldeko sarjentuari eskatzen zioten permisoa.

20. Bost urte eta erdi soldadutzan

- **Erref:** ARR-175/032
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:41:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Soldadutza](#)

Laburpena:

18 urterekin soldadu joan eta 24 urterekin bueltatu zen etxera. Bost urte eta erdi egin zituen soldadu, bi alditan banatuta. Soldadu egon zen bigarren aldian instrukzioak bakarrik egin zituzten. Ez ziren Gasteizetik irten ere egin.

21. Soldadu denboran jan faltarik ez

- **Erref:** ARR-175/033
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:41:00. **Bukatu:** 00:42:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Matiasen soldadu pasatu zituen ia sei urteak gose urteak izan ziren. Soldadu egon zen denboran ondo jaten zuten: ogi zuria eta rantxoak. Domeketan etxera joaten zenean, jateko zerbaitekin bueltatzen zen Gasteizera.

22. Mojategiko lursailak eta plazako salmenta

- **Erref:** ARR-175/036
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:42:59. **Bukatu:** 00:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Ortu dezentea zeukaten Mojategi baserrian. Ebakoitzetan Matiasen arreba joaten zen plazara, salmenta egitera. Plazan zer saltzen zuten: oilaskoa, patata, porrua, baba gorria... Mojategiko lursailei buruz hitz egiten du. Garia eta artoa landatzen zuten.

23. Etxeko jatorduak

- **Erref:** ARR-175/037
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:44:08. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

"Armosatzeko", kafesnea ogiarekin. Bazkaltzeko, baba gorriak urdaiarekin. Ondoren, sagarren bat. Taloa eta morokila egiten zituen Matiasen amak.

24. Aste guztirako ogia

- **Erref:** ARR-175/038
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:45:15. **Bukatu:** 00:45:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Aste guztirako egiten zuen ogia amak. Labekada batean 10-12 ogi egiten zituen.

25. Baserriko lanetan orduak "kontatu gabe"

- **Erref:** ARR-175/039
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:45:53. **Bukatu:** 00:46:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Zazpirak inguruan afaltzen zuten. Afaldu ondoren lanean jarraitzen zuten baserrian. Lantegian 8-10 ordu lan egin, eta baserriko lanetan orduak "kontatu gabe" aritzen zirela dio.

26. Behiak batzea eta esne partiketa

- **Erref:** ARR-175/040
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:46:28. **Bukatu:** 00:47:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Denbora askoan aritu zen Matiasen ama behiak batzen. Gero, amak urteetan aurrera egitean, Sebastian eta Matias anaaien artean jezten zituzten lau behi. Bildutako esnea auzoan bizi ziren tia-tioen etxean lagatzen zuten. Gero, tiak Musakolako etxeetan banatzen zuen esnea.

27. Garia entregatzea

- **Erref:** ARR-175/042
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:47:39. **Bukatu:** 00:48:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>50 kilo gari entregatu behar izaten zuten udaletxean.</p>

28. Osiñako errota

- **Erref:** ARR-175/043
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:48:26. **Bukatu:** 00:50:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Errotak itxi zituzteneko garaiaz hitz egiten du. Osiñako errotan guardia zibilak egoten ziren egunez; errotariak hamaiketako ematen ziren. Errota ez zegoen prezintatuta. Matias eta anaia Sebastian gauz joaten ziren errotara.

29. "ABC" lantegia

- **Erref:** ARR-175/044
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:50:32. **Bukatu:** 00:52:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Arzamendi, Berecibar y Cía lantegian sarrailak muntatzen zituen Matiasek. Lantegiaren gainbeheraz hitz egiten du.

30. Nobiotako kontuak

- **Erref:** ARR-175/047
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:00:41. **Bukatu:** 01:01:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Bere emazte izango zenarekin nobiotan noiz hasi zen kontaktzen du: "lagun egin gitzen San Pedro Egun baten". Hiru urte nobiotan ibili eta ezkondu egin ziren. Txikiteoan neska-laguntzen baino gehiago. Matiasen hitzetan xirriak berez ikasten dira, eskola gabe.

31. Domeketako dantzaldia

- **Erref:** ARR-175/048
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 01:01:41. **Bukatu:** 01:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Domeketan musika egoten zen Arrasateko plazan. Plaza bete-beteta egoten zen. Musikarien atsedendian, estazioraino bueltatxoa egiten zuten. Neska-mutilek elkarrekin egiten zuten dantza.

32. Etxezarreta ondoan pinu sartzen...

- **Erref:** ARR-175/052
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:03:25. **Bukatu:** 01:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Etxezarreta abokatu eta diputatuaren baserri ondoan diputazioak aginduta pinu landarak sartzen hasi zireneko pasadizoa kontatzen du. "Señoritoa" esaten zioten. Etxezarretaren euskara "behetarra" zela dio Matiasek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com